



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurenko Ibarra

16 Zk. Maiatza-Iraila 2014

Informazio Buletina

UDAN ERE, EUSKARAZ BLAI!!

Ikasturtean osoan zehar euskararen murgilduta ibili ondoren, adituek udako oporretan zehar haurrek euskararekiko harremana erabat ez galtzeko ahalegina egiteko aholkua ematen dute. Jarraian San Pedro Eskolako bi langileren iritzia jaso dugu: Amaia Zubiria, D ereduko ikasketa burua, eta Idoia Carricas, Haur Hezkuntzako irakaslearena.

Zergatik da hain garrantzitsua udan haurrek duten euskararekiko harremana mantentzea?

Ikasturtean zehar euskaraz ikasteaz gain, jolastokian, gelan, jantokian... haien arteko harremana euskaraz izatea lortu dute. Haurren arteko euskarazko harremana mantentzen baldin bada, ikasketetarako eta hizkuntzaren garapenerako onuragarria izango da.

Zer egin dezakete euskaldunak ez diren familiek euskararekiko harreman hori mantentzeko?

Udak, ongi pasatzea dakar eta nahiz eta familiak euskaldunak ez izan, haurrek momentu politak pasa ditzakete, igerilekuan, parkean, txangoetan... Horretarako, familiek beren haurrentzako euskarazko jarduerak aukeratu ditzakete eta haurrak euskaraz egitera animatzea funtsezkoa da.

Gauzarik errazena, udan telebista, bideoak, pelikulak, marrazki bizidunak euskaraz ikustea da. Horretarako gaur egun Internet baliabide aproposa dugu, bertan euskarazko jolasak, marrazki bizidunak, ipuinak... aurki ditzakegu. Bestalde, irakurtzen dakiten ikasleek udan zehar euskarazko liburuak irakurtzea gomendatzen dugu; gainera, erraza dute, Ibarreko liburutegian euskarazko hainbat liburu eta ikusentzunekeko material aurkitu baitaitezke.

Horretaz gain, euskaraz bizi eta gozatzeko Udalak eskaintzen dituen euskarazko hiri kanpaldietan izena eman dezakete, zein bestelako euskarazko udalekuetan. Udalak aurten euskarazko udalekuak diruz-laguntzeko deialdia atera du eta horien oinarriak webgunean aurkitu daitezke.

Eta udaleku edo hiri kanpaldietara joaten ez diren haurrak, beti ere, familiek txangoak egiteko asmoa baldin badaute, eremu euskaldunetara joatera animatzen ditugu. Txango horietara autoan doazen bitartean, euskarazko kanta eta ipuinak entzuteko aprobetxatu dezakete, gainera.

Non patatu daitezke baliabide horiek?

Udalan, bertatik eskaintzen diren euskarazko jardueri buruzko informazioa eskatu daiteke, baina horretaz gain, Interneten jolasak (www.aisia.net), ipuinak (www.aittu.net) eta marrazkiak (www.marrazkiak.euskal-encodings.com) aurkitu ditzakegu.

HAURRAK

MUSIKA HASTAPENEN 1. MAILA, 2014/2015 IKASTURTEAN ZEHAR

2011ean jaiotako haurrentzako.
Izena emateko epea: maiatzaren 19tik 29ra, Musika Eskolan.
Informazio gehiagorako: Lino Otaño Musika Eskola (948 24 16 23).

IGERIKETA, 2014/2015 IKASTURTEAN ZEHAR

Hastapena 0:

Ostiralak, urriaren 1etik abenduaren 22ra (1. txanda), 17:30 – 18:10.

Astelehenak, urriaren 1etik abenduaren 22ra (1. txanda), 17:30 – 18:10.

Talde bakarrean edo bietan izena emateko aukera dago.

Hastapena 1:

Ostiralak, urriaren 1etik abenduaren 22ra (1. txanda), 18:15 – 18:55.

Astelehenak, urriaren 1etik abenduaren 22ra (1. txanda), 18:15 – 18:55.

Talde bakarrean edo bietan izena emateko aukera dago.

Behe mailako Hobekuntza:

Astearteak, urriaren 1etik abenduaren 22ra (1. txanda), 18:15 – 18:55.

duaren 22ra (1. txanda), 18:15 – 18:55.

Goi mailako Hobekuntza:

Ostiralak, urriaren 1etik abenduaren 22ra (1. txanda), 19:00 – 19:40.



Erroldatuentzako izen emateak: ekainaren 6tik 9ra, biak barne, 012aren bidez.
Informazio gehiago: Kirol Zerbitzua (948 24 68 50).

MULTIKIROLA, 2014/15 IKASTURTEAN ZEHAR

2014an zehar **4 eta 7 urte** betetzen dituzten haurrentzako (biak barne).

Ordutegia: astelehena eta asteazkena, 17:30etik 18:15era.

Lekua: Udal Kiroldegia (3. Aretoa)

Erroldatuentzako izen emateak: ekainaren 6tik 9ra, biak barne, 012aren bidez.

Informazio gehiago: Kirol Zerbitzua (948 24 68 50).

UDAKO KANPALDIAK

Beren seme-alabak euskarazko kanpaldietan inskribatu dituzten familiantzako gastua ordaintzeko laguntza ekonomikoak (Haur Hezkuntza eta Bigarren Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleak).

Laguntza ekonomikoa jasotzeko eskaera epea irailean egongo da irekita.

Oinarriak www.aranguren.es ikus daitezke.

Informazio gehiagorako Euskara Zerbitzua.

TXANTXARIAK

Jolas dinamizazioa musikarekin, URTXINTXA AISIALDI ESKOLAREN eskutik.



Eguna: ekainak 21.
Ordua: 18:00etan.
Lekua: Irulegi plazan.

GAZTE ETA HELDUAK

EUSKARA IKASTEKO BEKAK

2013/2014 ikasturtean zehar euskara ikasi duten eta hauetako baldintzaren bat edo biak betetzen dituzten pertsonentzako:

- Ibarrean erroldaturik egotea.
- Ibarrean jendaurrean lan egitea Udal zerbitzuren bat kudeatzen duen enpresaren bateko langile gisa edo hiriguneko establezimendu komertzialen batean.

Eskaerak aurkezteko epea: urriaren 3, 14:00etan, Udaletxeko Erregistro Orokorrean.

Informazio gehiago:

www.aranguren.es—en eta Euskara Zerbitzuan.

EUSKARA IKASTEKO ESKOLAK, 2014/2015 IKASTURTEAN ZEHAR



2014/2015 ikasturtean Ibarrean euskara ikasi nahi duzu? Euskara Zerbitzuan talde berriak sortu nahi ditugu. Deitu eta informa zaitez.

Aurre-izenemateko epea: ekainaren 6ra arte.

EUSKALDUNEN FITXATEGIA

2009an Aranguren Ibarreko Udalak Ibarreko Euskaldunen Fitxategi bat sortzea erabaki zuen. Fitxategi horren helburua hala nahi zuten biztanleei Ibarrean antolatzen diren **euskarazko edo euskarari buruzko** jarduerak modu eraginkorragoan jakinarazi ahal izatea da. Horrelako **jardueren berri jaso nahi baduzu edo** fitxategian egoteko fitxa bete zenuenetik zure **daturen bat** (e-posta, telefonoa...) **aldatu baduzu, jar zaitez udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan.**

ARGITALPENAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako «Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitez Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. Erroldatuentzako doako aleak daude.



Udalaren helburua Ibarreko taldeekin **elkarlanean** aritzea da. Ibarrean euskaraz edo euskarari buruzko jardueraren bat antolatzeko proposamenik baldin baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan.

EUSKARA ZERBITZUA
Mutiloa pl. z/g. Mutiloa
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 01 93

euskera@aranguren.es
www.aranguren.es